



Sorgin Jainen batzordeak San Pedro jaien irakurketa positiboa egin du /4

Eskola-Kontseilua eratzeko lehenengo pausoak eman dira

Udal Batzarrak Lasarte-Oriako Eskola-Kontseiluaren Araudia onartu zuen

Atzo goizean egin zen Udal Batzarrean Lasarte-Oriako udalerriko Eskola-Kontseiluaren Araudiaren lehenengo onspena burutu zen, bestea beste.

Eguneko gai nagusian EAko zinegotzia izan ezik, abstenitu zena, zinegotzi guztiak bat etorri ziren bozkan alde eginez.

Era honetara, ikastetxe eta herritarrek egindako eskaerari erantzun ematen dio Udal Batzarrak.

Beharrezko tresna

Alderdi guztiak ados agertu ziren, Eskola-Kontseilua beharrezko tresna zela eta araudiaren onspena berri ona dela esanaz.

PPko zinegotziak, J.A. Encinasek gogoratu zuen herritarrek, zein ikastolek eskatutako tresna dela Eskola-Kontseilua eta

Ana Prieto LOHPko zinegotzia bat etorri zen Encinasek esandakoarekin. Gainera, Hezkuntza Batzordean egindako proposamena egin zuen batzarrean emendakin gisa, Eskola-kontseiluaren batzorde iraunkorra sortzea.

Udal Batzarrak bozketa egin eta emendakina ez zen aurrera atera. PSOE eta PPEk aurka egin zuten, PNV, LOHP eta zinegotzi ez adskrituek alde bozkatu zuten eta EA eta EB abstenitu egin ziren.

Zinegotzi ez adskrituek bere txandan, "Zaballosek esan bezala, ona izango litzateke Eskola-kontseilua martxan jartzea eta beste kontseilu eta batzorde berezi batzuk bezala ez alde batera uztea", adierazi zuten.



Alderdi guztiak bat egin zuten herriko hezkuntza sailerako Eskola-kontseilua trena garrantzitsu eta baliagarria dela esanaz.

Eta honela jarraitu, "Muji-ka alkate-ordeak esan zuen ez dituela arazo guztiak konponduko. Hori badakigu, baina behintzat tresna garrantzitsua izango da horiek konpontzeko."

Parte hartzea sustatu

PSOeren izenean, Iñaki Mujikak, Udalak herritarren parte hartzea sustatzeko esparruan egindako egitasmoa dela aipatu zuen.

Eta "Udal Gobernuak sustatutako ideia dela azpimarratu nahiko nuke, nahiz eta gero oposizioko zinegotziak bat egin," adierazi zuen jarraian.

Honetaz gain, "ez ditu arazoak konpondu baina hez-

kuntza mailan arazoak konpontzeko erraztasun gehiago izango ditugu tresna honekin," gaineratu zuen.

Araudia

Araudiaren sarreraren aipatzen den bezala, "Lasarte-Oriako Udalerriko Eskola-Kontseiluak unibertsitatez kanpoko irakaskuntzaren programazioarekin zerikusia duten gizarte-sektoreentzat partaidetzako, aholkularitzako eta kontsultako organoa izango da."

Eta honela jarraitzen du "Herritarrek hezkuntzaren arloan parte-hartze eraginkorragoa edukitzea ahalbidetuko du. Horrela, aginte publikoek hobeto erantzun ahalko diete hezkuntzaren

arloan herritarrek dituzten premiei eta, oro har, komunitatearen beharrei."

Kontseiluan Udala, talde politikoak, ikastetxeak eta gurasoen elkarteak egongo dira ordezkatuak eta kontseiluaren lehendakaritzak alkatearen edo hark izendatzen duen zinegotziaren eskuetan egongo da.

Araudiarekin jarraituz, Eskola-Kontseiluak aholkua eta informazioa emateaz gain, eginkizun ugari beteko ditu, hala nola, eskolak plazak sortzea, kentzea eta aldatzea, ikastegiak eraberritzea edo hezkuntza-arloko eskaintza lurraldean banatzeko dauden premiak eta irizpideak aztertu eta udalerriko eskola-mapa tankeratzea. •

GIZARTEA /3


Ttakunekin eta herriko lau ikastetxeekin hitzarmenak sinatu ditu Udalak

GIZARTEA /3

Errausketaren aurkako jaiak burutuko da bihar Zubietan

KIROLA /6

Igande honetan hasiko da zaldi-lasterketen denboraldia Donostiako hipodromoan




SUGATE

Sukaldeak

MERKATUKO PREZIO HOBARENAK !!

- Gremioen koordinazioa
- Ordenadore bidezko diseinua
- Konpromisorik gabeko aurrekontuak
- Horma- armairuak
- Marka guztietako etxetresna elektrikoak



DESKONTU BEREZIAK
%20 desk. modelo desberdinetan

Pintore kalea 5 • Tel./Faxa: 943 361471 • LASARTE-ORIA • www.sugate.net

Neure kabuz



Agur Sanpedroak

Bukatu dira. Sanpedro historikoak. Ezetz? Okendorik gabeko lehenengo Sanpedroak, aizue! Hori historikoa ez bada!... Arrazoi on-on bat egongo da, baina justu festak hastear daudela plaza xaflez itxeak... ez du giro on bat sortzen laguntzen, ezta? Hain zaila al zen malgutasun pixka batez jokatea?

Baina, tira, utz dezagun hori. Azkenean, festazaleak dira festaren sortzaileak, ez lekua. Agur Sanpedroak, beraz. Agur pasatako beroaldia. Agur sorgindutako bazterrak. Festa bukatuta errealtatea hasten da. Agur ijiji-ajajak, beraz. Zer?... Agur ijiji-ajajak? Tte, tte, tte... geld, geld hor. Gogotatxoa ez al du merezi horrek?

Egia esan, badago jarrera bat gure denbora (gure bizitza, oro har) hesitutako konpartimenduetan zatitzeko, ezta? Horren arabera, eta harira ekarriz, festarako denbora bat legoke eta beste bat bizitza errealerako, eta ez lirarteke biak elkarrik nahastu behar. Festak, edota oporrrak, errotina aldatu eta eguneroko arazoak ahaztuta ijiji-ajaja hutserako lirarteke ikuspegi horretatik.

Ez dakit, ba. Ondo dago errutinak aldatzea, baina arazoak ahaztea... ez naiz ni gauzak ahazteko zalea (gauza gehiegi ahazten dudalako agian). Gainera poliedrikoak gara, dena dago aldi berean gure baitan: krisia, presoak, beste-lako arazo eta egoera latzak... eta ijiji-ajajak, denak, ezin dira xaflez bereizterik. Denetarako dago lekurik festaren barruan. Eta kanpoan. Malgutasun pixka batez jokatea da kontua.

Pablo Barrio

Zorion-agurrak



Udane

Zorionak eta hiru muxu handi amona Mertxe, osaba Aritz eta izeba Naikariren partetik.



Josetxo eta Juli

Zorionak zuen alabaren eta bere lagunen partetik! 50 muxu handi!



Amaia

Zorionak Amaia! Zure aita, ama eta ahizparen partetik.



Xabier eta Gaizka

Zorionak bikote zuen urtebetetzean. Gurasoak, aiton-amonak eta lehengusuen partetik. Muxu handi bat.



Goreti

Zorionak marisorgin, zure lehenengo urtebetetzean, familia guztia- ren partez.



June eta Unax

Zorionak June (3) eta Unax (1). Muxu handi bat famili guztia- ren partetik.



Susane

Zorionak Alaia eta Goioeren partetik. Ondo pasa eta muxu handi bat.



Oier

Zorionak zure bigarren urte betetzean! Zure gurasoen partetik. Muxu handi bat.



Ane

Zorionak! Jaso dozena bat muxu eta gorde udal- lekuetako motxilan. Ondo pasa! Ama, aita, Maider.



Ion

Zorionak fonta! Zu ardo on bat bezala. Ondo pasa eta pote bat ordaindu. Familia eta lagunak.



Rosario eta Eusebio

Zorionak zuen urrezko ezteiangatik. 50 muxu biontzat. Seme-alaben eta biloben partetik

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

• Lasarte-Oriako zentroan pisu bat alokatzen dut. Harremanetarako zenbakia, 686 674 552.

• Uztailaren 15etik 31ra pisua alokagai Donostian, Easo kalean. 615 71 97 25. Kontxu

• Etxebizitza alokatzen da Lasarten, Sasoea auzoan. 3 logela, sala eta igogailua du. Harremanetarako zenbakia, 661396299.

Salerosketak

• Daewoo Matiz autoa salgai. Estrenatu eta matrikulatu gabea. Bost lagunentzako tokia du. Garantia ofizialekin.

• Salgai haurra eramateko kotxea eta aukia. Jane Nomad markakoa da. Egoera onean. Tel.: 687 965 454.

• Salgai Refugas markako gas-frijigailu industriala. Luzeran 63 zm. eta zabalean 40: erabilgarriak 43x28. Salneurria: 250 euro, negoziaga-

rriak. Tel.: 943 371 902, 648 833 472 eta 676 742 860.

• Salgai Refugas markako Maria bainuko gas-aparatu bere osagarriekin. Luzeran 56 zm. eta zabalean 32. Salneurria: 250 euro, negoziagarriak. Tel.: 943 371 902, 648 833 472 eta 676 742 860.

Lan-eskaintzak

• Pertsona bat behar dut udan, uztailaren erdian eta abuztuan, klase partikularrak emateko 8 urteko haurrari. Tel.: 615 793 964.

• Irakasle bat behar da lehen hezikuntzako haur bati laguntza eskolal emateko. Tel.: 667 808 011.

Lan-eskaria

• Estatu Batuetan 20 urtez bizi izan den irakasleak, ingeleseko klaseak emango lituzke edozein adina eta maila. Tel.: 943 362605 Elena

Bestelakoak

• Altabozak erosiko nituzke. Tel.: 943 362998, Luis.

• Gitarrako klaseak hartuko lituzte 12 urteko mutiko batek. Tel.: 615 793 964.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858 • Geltoki 4 • txintxarri@ttakun.com
www.txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburrak.com

Jaiotzak

Xabier Diez Gonzalez, uztailaren 1ean
Luis Garcia Jimenez, ekainaren 22an
Andrea Ferreira Martin, ekainaren 18an
Peru Hernandez Montalvo, ekainaren 16an
Aimar Serrano Fuentes, ekainaren 16an
Ariane Izaga Simón, ekainaren 15ean
Maider Urdampilleta Rodriguez, ekainaren 15ean

Heriotzak

Feliciano Etxeberria Furundarena, uztailaren 6an 83 urte zituela
Ignacio Lizaso Aiestaran, uztailaren 2an 74 urte zituela
Petra Prieto Muñoz, ekainaren 24ean 84 urte zituela
M Concepcion Martinez Benito, ekainaren 23an 78 urte zituela
Pedro Galardi Iradi, ekainaren 23an 77 urte zituela
Miren Begoña Adecosa Ugartechea, ekainaren 20an 83 urte zituela

Guardiak

Ostirala, 10, Urbistondo
San Frantzisko 1, Tel.: 943 366567
Larunbata, 11, Orue
Jaizkibel plaza 2, Tel.: 943 362652
Igandea, 12, Orue
Jaizkibel plaza 2, Tel.: 943 362652

Astelehena, 13, Orue
Jaizkibel plaza 2, Tel.: 943 362652
Asteartea, 14, De Miguel
Kale Nagusia 32, Tel.: 943 371151
Asteazkena, 15, Urbistondo
San Frantzisko 1, Tel.: 943 366567
Osteguna, 16, Gil
Kale Nagusia 24, Tel.: 943 361529

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarteak, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SSS13/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Udalak Ttakunekin eta herriko lau ikastetxeekin hitzarmenak sinatu ditu

■ Hitzarmenen helburua herritarren artean euskararen erabilera sustatzea da

TXINTXARRI

Ostiralean, uztailek 1, Lasarte-Oriako Udalak Ttakun Kultur elkartearekin eta herriko ikastetxeekin elkar laneko hitzarmenak sinatu zituen.

Udalaren izenean Ana Urchueguia alkatea, Euskara Batzordeko lehendakaria den Rikardo Ortega eta Ana Sanz idazkaria egon ziren; Ttakun Kultur elkarteakolehendakaria den Mari Jose Eizmendi eta ikastetxeen izenean, Landaberri ikastolako zuzendaria Iosu Garmendia, Sasoeta-Zumaburuko zuzendaria Koru Goikoeuxea, Landaberri Institutuko Abene Arriola eta Lasarte-Oriako Institutuko Esther Urrutia.

Rikardo Ortegak sinadura ekitaldia hasi baino lehen azaldu zuen bezala, herritarren hizkuntzako gaitasuna hobetu eta euskara erabiltzeko erraztasunak handitzea dute helburu hitzarmenak.

"Ttakunekin urte asko darabagu elkar lanean eta ikastetxeekin, aldiz, iaz hasi ginen. Esperientzia positiboa izan da eta errepikatzea erabaki dugu," adierazi zuen Euskara batzordeko buruak.

Ttakun Kultur elkarteak

2009-10 ikasturteko Udalak eta Ttakun kultur elkarteak hitzartutako egitasmoetarako diru-laguntza jasotzen da lehengo astean sinatutako



Ana Urchueguia alkatea, Rikardo Ortega eta ikastetxeetako, zein Ttakuneko ordezkariak sinadura ekitaldian.

hitzarmenean. Hain zuzen ere, 187.955,59 eurotako diru-laguntza jasotzen du, iaz baino 3.500 euro gutxiago.

Diru-laguntza hau jasotzen dituzten programak hiru multzotan daude banatuta. Multzo nagusiak haurren eta gazteen aisialdia euskalduntzera zuzendutako programak biltzen ditu (udako txokoak, gazteentzako kanpaldiak, Amaraun ludoteka, Kuadrillategi programa eta abar), bestetik

Txintxarri aldiria laguntzen du diruz, eta azkenik, Solaskide-solasbide programa dago. Honetan euskaraz hitz egiteko ohitura duten pertsonak euskara ikasten ari direnekin edo hitz egiteko harreman-sareak nahi dituztenekin harremanetan jartzen ditu Ttakunek.

Era honetara, hitzarmenaren arabera, Ttakun Kultur Elkarteak arduratuko da programa horien guztien antolaketak eta kudeaketaz.

Ikastetxeak

Bestalde, Alkateak herriko lau ikastetxeetako zuzendariarekin ere hitzarmen bana sinatu zuen. Alkateak adierazi zuenez, "Udaleko Euskarako Batzordeak eta ikastetxeek hasiera-hasieratik, Udala osatu zenetik, lan egin dute elkarren eskutik gure herriko haur eta gazteen hizkuntza-gaitasuna hobetu eta euskaraz hitz egiteko ahalik eta erraztasun eta ohitura gehien lor dezaten."

Hitzarmen hauekin, elkarren arteko harremana sistematizatu eta kudeaketa hobetzeko ahalgintzari hasiera eman zioten iaz eta, esperientzia positiboa izan denez, segida emango zaio datoren ikasturtean ere. Modu honetara, ikastetxeek ikasturtea hasi aurretik badakite Udalak zein programa lagunduko dien diruz. Programa horiek gainera ikastetxeek beraien lana osatzeko aukeratu dituztenak dira.

Diruz lagundutako programen artean daude ikastetxeeko aldiriak *Irakurtzezin*, *Esazu* eta *Irrintzi*, pertsonaia ezagunen bisitak, orduz kanpoko jarduerak *Euskalduntzeko hezitzaileek asko egin dezakete!* programa, *Lagunarteko hizkerarekin jolasean* programa edo *Ahozkotasuna eta bertso-larritza* programa bezalakoak.

Lau ikastetxeekin sinatutako hitzarmenak desberdinak badira ere, bai programetan eta bi dirutan ere, gutzira lauen artean, 46.498,07 eurotako aurrekontua suposatzen dio Udalarari, iaz baino 1.500 euro gutxiago.

Alkateak adierazi zuen ahalgintza handia egiten duela Udalak hitzarmen hauekin eta pozik dagoela erakunde hauek egiten duten lanarekin. Honez gain, aurreko egoera ekonomiko zailera moldatzeko guztiak egin duten ahalgintza ere azpimarratu zuen. •

Bihar, errausketaren aurkako jaia egingo da Zubietan

Goizean hasi eta iluntzera arte, hainbat ekintza egingo dira bihar Zubietan, Errausketaren Kontrako Gipuzkoako Koordinakundeak antolatuta.

Eusko Legebiltzarrean Hondakinen Legea eztabaidatzeko 35.000 sinadura bildu ditu koordinakundeak, eta hori ospatzeko jaia antolatuta dute.

Jaialdia

Goizeko 10:00etan hasiko dira ekintzak. Ordu horretan, mendi martxa hasiko da Zubietako plazatik errauskailua eraiki nahi duten lur-sailetara.

Ondoren, erakusketa eta bideoa izango dira, eta, 12etan, Txan magoaren erakustaldia, eta, ordubetik gero-

ago, bertsolariak. Herri-bazkaria ere izango da indarrak berreskuratzeko, eta Gartxot abeslariak bazkaria alaituko du.

Arratsaldean, berriz, 17:00etan, herrien arteko herri kirolak hasiko dira, ondoren, dantzarien emanaldia izango da, eta, 20:00etan, erromeria. Gaueko 22:00etatik aurrera, kontzertuen txanda izango da.

35.000 sinadura errausketaren aurka

Azken hilabeteetan sinadurak biltzen ibili dira Errausketaren Kontrako Koordinakundekok. Eusko Legebiltzarrean Hondakinen Legea eztabaidatu ahal izateko 30.000 sinadura bildu behar zituzten,

baina bost mila gehiago lortu dituzte.

Taldekieak "oso pozik" azaldu dira emaitzarekin, eta herritarrek emandako erantzunarekin.

Koordinakundeak egindako Hondakinen Legean jasotzen denez, zabor organikoaren gaikako bilketa intentsiboa bultzatu behar da, ez, ordea, errausketa.

Taldearen arabera, atezateko bilketa jarri behar da abian. Uste dute gainera, agintariek "ez dutela legea betetzen", legeak zabor organikoaren gaikako bilketa agindu baitzuen 2001erako.

Koordinakundearen arabera, sinadura bilketa amaitu dute, baina, aurrera begira, izango dute zereginik.



Haien esanetan, alderdi politikoekin bilerak egingo dituzte plataformaren eskaerak zeintzuk diren "argi uzteko". Taldearen arabera, gainera, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Kontsultazioak,

errauskailua ezartzeko pausuak ematen ari dira, "eta lanak edozein unetan has daitezke". Horregatik, aurrerantzean ere herritarren "laguntza" beharko dutela ohartarazi dute. •

Partehartzea eta elkartasuna sustatu dituzte Sorgin Jaiek San Pedroetan

■ Sorgin Jaietako Batzordeak irakurketa ona egin du aurtengo jaiei buruz

SORGIN JAIAK

Sorgin Jaiei agur esan ostean eta pixkanaka pixkanaka gauza guztiak jasorik ditugunean, jaiak kanpo eta barrutik bakoitzak nola bizi izan dituen eztabaidatzen izan gara mahai inguru batean, horren emaitza da honako idatzia.

Aldez aurretik argitu behar da, horrelako antolakuntza maila handia eskatzen duen ekitaldi batek, bi balorazio ezberdin biltzen dituela, bata barne mailan eta antolakuntzari dagokiona, zeina ez den horren publikoa eta bestea aldiz guztiok ikusi eta parte hartu ditugun kontuei dagokiena zeina publiko egingo dugun hemendik aurrera.

Balorazio orokorra, oso ona izan da. Hemen puntuz puntuko balorazioa.

Jai parte hartzaileen eredia

Aurtengo jaietan egunetik egunera harridura erabatekoa izan da, espero ez genuen jende kopurua bildu baita metro karratu txiki bezain goxo horietan, beste herrietatik etorritako jendea ere asko ugaritu delarik.

Baina horrek ez du jaien herritartasun askorik eragin, eta esan daiteke ikusgarria izan dela jendeak parte hartzeko izan duen zaletasuna burutu diren ekintza guztietan, dantza, karaokea, margoketa, umeen bazkaria, Oriako jaitsiera e.a....

Honela bada esker mila parte hartu duten herritar guztiak eta muxu sorgindu bana guzti guztiak. Berritoki errepikatzen dugu 8 urte hauetan esana, herriak eginak herriarentzat.

Alboko herriekin lanean

Esperientzia oso positiboa eta

polita iruditu zaigu larunbatean zehar beste herriekin batera eginiko joko eta abarrrak. Iada lagun berriak egin ditugu, batzuk lagunak baino gehiago ere!!!

Horregatik orain urtean zehar guk egin beharko dugu bidaia beste herrietara. Ea herrien arteko hartu emanak handitzen ditugun eta giro sano batean jendea ezagutu.

Belarritik tiraka

Belarritik tiraka hasita badira bat baina gehiago kontatzekoak, lehena guri dagokigunez, Altxorraren bila ez burutzea, bigarrenaz, txoznaren itxiera orduarekin azken egunean izandako deslizea. Honekin barkamenak eskatzen dizkiegu inguruko bizilagunei.

Baina badira ere gureak izan ez diren akatsak:

- Larunbat gauean komun kimikorik ez zen izan herriko kaleetan, horrek dakarrena kontutan hartuta. Udaletxeari galdetu zergatik.
- Oriako jaitsieraren ostean udalak ez zuen agindu zuen bezala hipodromoko berja ireki.
- Oholtza aurten ere Sorgin Jaien kontura eta Zestoako udalari esker jarria. Udalak agindurikoa bete gabe utzia.

Hemendik mila esker ala ere udaleko langileei, ohol-tza montatzen buru belarri ibiltzeagatik.

- Presentzia poliziala. Sorgin Jaiek salaketa berezia burutu nahi dute batez ere igande gauen jasan behar izan genuen presentzia polizialaren aurrean.

Sorgin gunean 4 urteetan ez da sekula inolako istilurik izan, orduan zergatik eta zertarako horrenbeste polizia? Honekin batera astearte



Gaszte ugari bildu zen Sorgin gunean antolatutako karaoke, zein kontzertuetaz gozatu eta ongi pasatzeko asmoz.

arratsaldean sorgin gunera eginiko sartu irtena ez dugu ulertzen, ulertzen ez dugun bezala herri honetan argazki batzuekiko eta herriko pertsona batzuekiko dagoen maitasuna zergatik debekatu nahi duten.

Eskerrak

Mila esker herritar guztiei, bertan izan ez zaretenoi gonbita hurrengo urteetarako, eta egon zaretenoi milaka muxu.

Lanean ibili zareten guztiak, aupa zuek! Zuek gabe ez litzateke berdina izanen, Zestoako udalari eta bertako langileei besarkada bat, oholek badute pixua!!!

Ala ere galdera batekin amaitu nahi dugu balorazio hau, zergatik jai parte hartzaile eta euskaldunak nahi dituenak bi bider ordaindu behar dituzte jaiak? •

Sorgin Jaietako gastuak

Jai hauek aurrera eramateko diru asko behar izan dugu, hemen behean zerrendatuko ditugu gastu garrantzitsuenetakoak:

6. Bazkari, afari, mahai, aulki,...: 1300 euro

7. Arropa, zapi etab.: 2000 euro

8. Argi indarra: 1300 euro

9. Garraioak: 300 euro

10. Propaganda: 840 euro

11. Istripu bidez hondaturiko portatila: 1000 euro

1. Oholtzaren garraioa, Zestoatik Lasartera: 400 euro

2. Musika taldeak: 3400 euro

3. Gunearen atontzea: 3000 euro

4. Ekipo musikala: 2400 euro

5. Barrarako edari, izotz, etab.: 9000 euro

Hauk izan dira gastu handienak, baina bestelako gastu txikiak ere dirua erruz joaten da. Honela mila esker ekonomikoki lagundu gaituzon guztiak. •



ELEKTRIZITATEA
ARREGUI

- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak

- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak



Kale Nagusia 39 • Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521 • LASARTE-ORIA

DJ Grassmann Musika jartzailea

‘Grasso eta Mancuso New Yorkeko bi disko jartzaile italoamerikar berezi ziren’

- Larunbatean arratseko 7etan hasita dantzatzeko musika beltza jarriko du Jalgi kanpoan.
- Soul, funki, reage eta jazza besteak beste. ■ Ordenagailuarekin musika sortzen hasia da.

Grassmann disko jartzailea izango da bihar arratsaldean Jalgi kanpoan. Gustuko du zeregin hori, zortzi urte daramatza Euskal Herriko taberna eta festatan musika jartzen. Bestalde, Hernaniko molotoff irratan saioa dauka larunbatero eta ordenagailuarekin musika sortzen ere hasita dago lasarte-oriarra.



Grassmann-ek musika jartzearekin batera, irratsaioa du Molotoff irrati librean eta doinuak sortzendentu ordenagailuz.

Jon ALTUNA

Txikitatik da musika zalea Grassmann, eta duela urte batzuk hasi zen rokanrol musika jartzen. Garai batean Zulon jartzen zuen musika eta gerora beste hainbat tokitan. Normalean festa edo tabernetan, baina bihar, giro ona egiten badu behintzat, kanpoan izango da. Taberna zuloko beroa-rengandik ihesi.

Zure gustuko musika jarriko duzu, ezta?

Bai, niri gustatzen zaizkidan diskoak erosten ditut, eta gero jarri ere bai.

Zein eratako musika da?

Musika beltza, soul, funki, reage, jazz...

Jendea dantzan ikusteak poz-tuko zaitu, ezta?

Bai noski, bestela, zu musika jartzen eta jendea dantzan egin gabe,... zer demontre da hau!!!

Zer nolako lekutan jarri duzu musika?

Tabernetan, Zulon, festatan,... guk ere antolatu izan ditugu festak eta musika geuk jarri.

Leku edo egoera bereziren bat gogoratzen al duzu?

Behin, Donostian, Haizearen Orrazian, Branka jatetxearen

terrazan egon ginen. Lagun bat dago sukaldari. Hark nagusiari esan eta festak antolatzen zituen.

Behin Iñaki Salvador jazz pianojole eta musikagilearekin egin zuten afari bat. Plater bereziak jarri zituzten afarirako, dastatzen eman eta Iñaki Salvadorrek berak plater horrek sugeritzen zionarekin musika jotzen zuen. Afariaren aurretik terrazan musika jartzen egon nintzen. Berezia izan zen, itsas ertzean musika jartzen.

Kanpoan izan al zara?

Ez, beti, Euskal Herrian.

Nondik datorkizu Grassmann izena?

Grass belarra da ingeles eta man gizona, eta belarra erretzea gustatzen zaidanez, horregatik dela uste dute askok, askotan esan didate, baina ez da horregatik.

60. hamarkadatik aurrera izan diren Djen historia zekarren liburu bat utzi zidan anaiak, eta hor zekarrenez, 70. hamarkadan New York-en, oso musika berezia jartzen zuten bi italoamerikarrek, denetarik, urte haietarako jada reagea, funkia eranstsi,...

Bat Francis Grasso deitzen zen. Honek batzuetan aste osoa pasatzen zuen lo egin gabe, (anfetamina edo hartuko zuten) pintxatu, eta ondoren

dendatara joan musika erostera. Bestea David Mancuso zen, bere loftean (ganbaran) musika jartzen zuen Ney Yorke. Bertan musika eta janaria berak jartzen zuen diru baten truke (bost bat dolarrengatik edo) eta oso soinu ona zeukala esaten zuten. Horrela, Grasso eta Mancuso elkartzuz, Grass eta Man hartu eta Grassman osatu nuen. Oso bizitza interesgarria zuten bi tipo hauek.

Zer da Afro-grooves?

Grooves, musika estilo bat da, edo hobe esanda, musika bat edo erritmo bat indartsua denean esaten da oso grooves-a dela. Eta afro, jakina da. Zein musika estilo jarriko dudan galdetzen didatenean, afro-grooves jarriko dudala esaten dut.

Jada zortzi urte musika jartzen, nabaritzen al duzu leku gehiagotan jartzen duzula musika, ala ez?

Agian gutxiago. Taberna eta klubetan orain izaten dituzte beraien disko jartzaileak. Gainera ez gara gehiegi aditzaera ematen.

Nekaturik sentitzen al zara ba musikarekin?

Ez, ondo. Etxean ordenagailuarekin musika egiten ere ari naiz. Horrek ere betetzen nau eta Hernaniko Molotoff irrati librean, larunbatero irratsaio bat egiten dut.

Ez dut asko pintxatzen, baina musika egiten eta saioarekin nahikoa dut. Pintxatzen ez badut ere, musika gustatzen zait eta hor segituko dut.

Musika egiten ari zara, disko batean jasotzeko ala bestela? Probatzen, ea zer edo zer ateratzen den.

Baina, oraindik lanean jarraitu behar, ezta? Ez dago musikatik bizitzerik...

Oso zaila da hori. Gainera nik egin nahi dudana musikaz,...


Ez da lehenengoa aldia Jalgi Kafe Antzokian zaudela, baina larunbatean terrazan, kanpoan, izango da, ezta?

Bai lehen ere egin genuen. Ikerrek taberna hartu zuenean komentatu nion uda batez, zergatik ez dugu kanpoan musika jartzen..., eta orain berriro egingo dugu. Larunbatean arratsaldeko 7etatik 9etara bi orduz jarriko dut musika.

ERREKATXO JATETXEA

JAUNARITZE ETA BATAIOMETAKO MENU BEREZIAK

- Eguneko menua
- Ostiraletako menua 8 euro
- Asteburuko menua enkarguz



Oria Etorbidea 4 • Tel.: 943 365557 • Lasarte-Oria

Kiroletako agenda

ZALDI LASTERKETAK

Igandea 12

94. Zaldi Lasterketa denboraldia

17:30ean - 1. Lasterketa, **A Galopar saria, 1.200m.**

	Kajoiak	Pisua	Jockey	Prestatzailea	Jabea
1	4	56	W. Smit	R. Avial	C. Raber
2	1	56	R. C. Montenegro	M. Alonso	C. Asturias
3	8	56	G. Madero	M. Delcher S.	C. Miranda S. L.
4	2	56	J. Grosjean	M. Delcher S.	C. Quinto Real
5	11	56	B. Fayos	A. Imaz Ceza	C. Aina
6	6	56	J. L. Borrajo	F. Rodríguez	C. Los Taneles
7	9	56	O. O. de Urbina	J. M. Borrego	C. Jiménez
8	7	54.5	O. J. Flores (B.R.)	R. Avial	C. Raber
9	10	54.5	C. Gnesi	E. Abajas	C. La Taleta
10	12	54.5	M. Borrego	Y. Duprepare	Stud De La Fuente
11	5	54.5	J. L. Martínez	R. Martín S.	Y. Urditiñ - Otiya
12	3	54.5	J. L. Uribe	A. Lezama	C. Lezama

18:05ean - 2. Lasterketa, **5AYC ASESORES saria, 1.600m.**

	Kajoiak	Pisua	Jockey	Prestatzailea	Jabea
1	2	68	Sr. Guy F.	R. Martín S.	C. Edif
2	8	67	Sr. Iglesias D.	Ch. Delcher	C. Hinkate
3	12	67	Sr. Sarabia D. A.	J. C. Fernández	C. Río Cubas S. L.
4	1	67	J. Grosjean	M. J. Pérez	C. Treinta y Tres
5	7	67	Sr. Avial R.	R. Avial	C. Raber
6	5	66	Sr. Mijangos J.	I. Bernal	C. Dehualdi Al Culo
7	11	65	Srta. González R.	M. J. Pérez	C. Danalia
8	9	64	Sr. Sánchez I.	J. M. Borrego	C. San Marcial
9	4	62.5	Sr. Aguilera R.	E. Fuente	C. El Sable
10	6	62	Sr. B. Nazari	E. Abajas	C. La Taleta
11	10	62	Sr. Pérez A.	R. Avial	C. Raber
12	3	62	Sr. Lezama A.	Ch. Delcher	C. Lagunilla

18:40ean - 3. Lasterketa, **Donostia Kirola saria, 1.600m.**

	Kajoiak	Pisua	Jockey	Prestatzailea	Jabea
1	7	58	O. O. de Urbina	R. López	C. Vadarchi
2	1	57	B. Fayos	B. Valenti	C. Tres y Medio
3	14	56.5	G. Madero	J.M. Borrego	C. San Marcial
4	6	56	D. Michaux	T. Callejo	C. Paganini
5	16	56	D. Delgado	E. Olgado	C. Nanina
6	3	56	J. I. Horcajada	J. P. Espinosa	Y. Militar
7	15	56	D. Marisson	J. A. Talbat	C. Yanai
8	9	56	C. Gnesi	E. León	BHD Club
9	12	56	R. C. Montenegro	F. Rodríguez	Reza Paroaki
10	2	56	W. Smit	R. Avial	C. Raber
11	13	55.5	J. L. Borrajo	M. Alonso	C. Asturias
12	11	54.5	O. J. Flores	R. Avial	C. Raber
13	5	54.5	F. Jiménez	A. Suñén	Y. Militar
14	4	54.5	M. Seca	R. Martín S.	Y. Urditiñ - Otiya
15	17	54.5	M. Borrego	Y. Duprepare	Y. Conto de Torres
16	8	54.5	J. Viarua	C. A. Carbajal	C. Ilusiones
17	10	54.5	J. Grosjean	M. Delcher S.	C. Salsaf

19:15ean - 4. Lasterketa, **Sorogain saria, 2.000m.**

	Kajoiak	Pisua	Jockey	Prestatzailea	Jabea
1	9	62	J. L. Martínez	J. C. Fernández	Y. Cortiñal
2	1	60	F. Jiménez	T. Callejo	Los Aspirantes D.T.
3	7	59	M. Seca	G. Antzakarreta	C. Ibiza
4	5	57	M. Borrego	I. Bernal	C. Río Cubas S. L.
5	2	56	J. I. Horcajada	J. L. de Salas	C. Retiro
6	4	55	O. J. Flores	R. Avial	C. Raber
7	10	54	B. Fayos	F. Galdeano R.	C. Inguis
8	3	54	J. Grosjean	F. Rodríguez	C. Los Taneles
9	6	53	D. Michaux	E. León	C. Tarnasol
10	11	52	R. C. Montenegro	M. Alonso	C. Emio
11	8	52	C. Gnesi	J. A. Borrego	C. Leco

19:50ean - 5. Lasterketa, **El Diario Vasco saria, 2.000m.**

	Kajoiak	Pisua	Jockey	Prestatzailea	Jabea
1	5	60	D. Marisson	Ch. Delcher	C. Zurraquin
2	9	60	J. I. Horcajada	J. L. de Salas	C. La Milla
3	7	59	J. L. Borrajo	G. Antzakarreta	C. San Ignacio
4	4	58	R. C. Montenegro	X. Thomas	C. Ardal
5	8	56	J. Grosjean	Y. Duprepare	C. Kif Kif
6	6	55	O. O. de Urbina	B. Valenti	C. Tres y Medio
7	3	54	W. Smit	R. Avial	C. Multi
8	2	53	D. Michaux	A. Imaz Ceza	C. Ombra
9	1	53	C. Gnesi	I. Del Barrio	C. Covadonga

20:25ean - 6. Lasterketa, **Hipodromo Turf saria, 2.000m.**

	Kajoiak	Pisua	Jockey	Prestatzailea	Jabea
1	1	61	J. L. Martínez	J. C. Fernández	Y. Cortiñal
2	4	59	J. C. Cerquera	E. Fuente	C. El Sable
3	14	59	R. C. Montenegro	A. Carrasco	C. Odisea
4	5	58	O. O. de Urbina	I. Bernal	C. Río Cubas S. L.
5	16	57	M. Borrego	J.M. Osorio	C. Paciencia
6	8	57	J. Grosjean	F. Rodríguez	C. Los Taneles
7	13	56	B. Fayos	F. Galdeano R.	C. Inguis
8	12	55	J. I. Horcajada	J. Jiménez	C. Jiménez
9	2	55	J. L. Borrajo	Y. Duprepare	C. Ardal
10	3	54	D. Delgado	E. Olgado	C. Nanina
11	7	54	C. Gnesi	I. Bernal	C. Buena Equi
12	9	54	M. Seca	E. Fuente	C. El Sable
13	11	54	M. A. Marín	J. C. Fernández	C. Todi
14	10	53	J. Viarua	A. Imaz Ceza	C. Río Sella
15	6	53	Sr. Gómez A.	I. Gómez	Estación Turf



Herriko zaldi lasterketen zaleek hitzordua dute igandetik aurrera Hipodromoan, aurtengo denboraldia hastera doa eta.

Zaldi-lasterketen denboraldia igande honetan hasiko da

Igande honetan, arratsaldeko 17:30ean, zaldi lasterketen 94. udako denboraldiari hasiera emango zaio Donostiako hipodromoan.

Mendeurrena gertu duela, Donostiako hipodromoak udako aisia eskaintza mantentzen du eta aurten ere emozioz, lasterketa eta apustuz betetako 12 jardunaldi aurkeztu zituen asteartean egin zen prentsaurrekoan.

72 lasterketa eta sarietan 944 mila euro banatuko dira igandean hasi eta irailaren 5ean bukatuko den denboraldian.

Ostegun eta igandean

Uztailak 12,19,26; abuztuak 2,9,13,15,20,23,27 eta 30 eta irailak 5ean izango dira aipatutako 12 jardunaldiak.

Era honetara, aste batzuetan igandez gain, ostegunean ere lasterketak egongo dira.

Ohitura den legez, abuztuak 15 larunbata izango da egun handia. Honetan, Urrez-

ko koparen 41. edizioa lehiatuko da.

Lasterketa hau, gainera, Europako hipodromoetan entzun handia duen Delfi du Galop txapelketaren barruan kokatu da aurten eta, beraz, Europako zaldi azkarrenak ikusteko aukera egongo da proba horretan.

Doako egunak

Hipodromoko arduradunek jakin arazi zuten, ia zoko prezioa mantentzen dituzte sarrerek.

Honela, uztaila eta iraillean lasterketak ikusi nahi dituen zaleetak sei euro ordaindu beharko ditu eta abuztuan, berriz, bederati.

Salbuespenak daude, noski, jubilatuek eta gazteek %50eko beharpena baitute sarreraren prezioan eta 14 urte azpiko haurrak doan sartuko dira.

Honetaz gain, abuztuak 20 eta 27an zaletu orok aukera paregabea du zaldi lasterketaz gozatzeko. Izan ere, bi ostegun hauetan sarrera

doan izango da ikusle guztientzat.

Haurren garrantzia

Haurrek sarrera doan izateaz gain, igandean pottokan edo kulunka berrietan ibili ahalko dira eta eskulanak egiteko txokoa ere izango dute.

Arratsalde dibertigarria eta berezia pasatzeko aukera izango dute beraz etxeko txikiak eta modu ekonomikoan gainera.

Realaren mendeurrena

Era berean, Donostiako Hipodromoan ere Realaren mendeurrenko ospakizunetan parte hartuko du.

Honela, 1916etik jokatzeko den Donostiako Sari Nagusia babestuko du Real Sociedadeko mendeurrenaren.

Proba hau irailaren 5ean lehiatuko da eta egun horretan talde txuri urdinaren kamixeta soinean jantzita agertzen diren zaletuak %50eko beharpena izango dute bere sarreran. •

Kirol Ludotekarako izena ematea ireki da

Udaleko Kirol Zerbitzuek, besteak beste, **Kirol Ludoteka** antolatzen dute ikasturtean zehar haurrentzako.

Egitasmoa igerilekuan eta kirol anitzeko pistan garatzen da eta kirol-aurreko joko eta jarduerak egiten dira.

Haurrek ariketa fisikoa era atseginean, errazean eta dibertigarrian egiten dute begirale baten zaintzapean.

Kirol Zerbitzuak jakin

arazi duenez, parte-hartzaile kopurua gora doa urtez urte, hori dela eta, eskaintza hobetu eta taldeak antolatuzko, 2009-2010 ikasturterako izena emateko epea zabaldu du.

Izena ematea

Kirol ludoteka 4 eta 7 urte arteko haurrei zuzenduta dago, beraz, 2002 eta 2005 urteen artean jaiotako haurrek

parte hartu ahalko dute hurrengo ikasturtean.

Saioak astelehenerdik ostiralerara egingo dira eta ordutegia kirol anitzeko pistan 18:00etan eta igerilekuan 18:30ean da.

Izena emateko edo jarduerari buruz informazio gehiago eskuratzeko, Udak kiroldegira hurbildu edo 943 376 182 telefono zenbakira hots egin behar da. •

Egunero

Erakusketa

RAFA ZUBIRIAREN argazkiak ikusgai. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan.

Ostirala, 10

Dantza

TALAIA ikuskizuna eskainiko dute Axular Gero dantza taldeko gaztetxoek. Manuel Lekuona kulturetxean, 22:00etan.



Ostirala, 17

Kontzertua

MIREN, pop euskaraz. Jalgi kafe-antzokian, 22:30ean.



Udako giroa aprobeztatzuz, musika Jalgico terrazan

Udan gaudela eta, kaleari eman nahi diote behar duen garrantzia eta herriko GRASSMAN DJAK (musika beltza), emaldia eskainiko du Jalgico terrazan.

BIHAR, LARUNBATA
JALGICO TERRAZAN
19:00ETAN

Liburutegiko udako ordutegia



UZTAILEAN
Astelehenetan, 08:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.
Asteartetik ostiralera, goizez soilik, 08:00etatik 14:00etara.
Larunbatetan itxita

ABUZTUAN
Manuel Lekuona Kulturetxea itxita egongo da.

Eskutitzak

Ehitzaren inpaktua murrizteko eskaera

Urtero garai honetan ohi denez, Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapeneko Departamentuak onarturiko foru agindu berriak ezartzen dituen ehizaren baldintzak eta mugak argitaratu ematen ditu. Horren aurrean, Ekologistak Martxan Gipuzkoatik Diputazioari baldintzak gogortzeko eta ehizaldia murrizteko 2009/2010etik aurrera eskatzen diogu.

Gabonetatik aurrera ehiztari kopurua mendian behera doanez eta urtarrila hilabeterik hotzera denez, askotan fauna ahulduz, ehiza garai murrizteko eta denboraldia abenduaren 31n ixteko eskatzen dugu. Gogoratu behar da aurtengo urtarrilean elurra zela eta sarraski handia egin zela oilagorarekin.

Era berean ordutegiaren murrizketa eskatzen dugu, hau da, goizeko irekiera atzeratzea eta itxiera aurreratzea, ilunpetan alegia egiten baitira gehiegikeri gehienak, hala nola erreklamoak erabiltzea, zelatan aritzea, segurtasun alderdien errespetu eza, e.a.

Bestalde, fauna birpopulaketak eta denboraldia itxiz gerozko ehiza-txapelketak debekatzeko nahi dugu. Modu berean, ehiza garaietan gerta litezkeen hotzaldiak direla eta, aurreikuspena dagoenean ehiza ixtea exijitzen dugu, hots, sarraskiak gertatu aurretik eta ez gerora.

Itxian hazteko baimentzen

den txoritxoan (karnabak eta) harrapaketa baldintzetan muga berriak ezartzea eskatzen dugu.

Ehiza larriari dagokionez, kontrol handiagoa exijitzen dugu. Horren kudeaketa basurde zein orkatzen populazioen jarraipen serio bezain profesionalan oinarrituta egon behar da. Askotan aisialdi eta ehizaren arteko batezartze salatu nahi dugu, zeren eta menditik ibilaldia egitea ehizaldian arriskutsu bilakatzen baita. Ehiza larriaren kasuan Gipuzkoan are gehiago, balaz eta erriflez egiten baita gurea bezalako lurralde itxi eta menditsuak.

Ehiza-baimen kopuru handia dago, urtero zigorturikoak ez dira gutxi (nahiz eta soilik harrapatutakoak diren!) eta, aldiz, basozainak urriak. Hor-taz, basozain gehiago kontratatzea eskatzen dugu, baina era berean, Ertzaintza eta udaltzainak inplikatu behar dira, haien eskumena ere da eta. Zigorrek gogortu behar direla iruditzen zaigu eta behin baino gehiagotan ilegalki harrapatutakoak direnak ehiza-baimena betiko kentzea eskatzen dugu.

Ekologistak Martxan Gipuzkoatik Foru Aldundiari aurtengo Foru Aginduan eskaera hauek aintzat hartzea eta bertan egokitzea eskatzen diogu. Helburua litzateke biodibertsitatearen kontserbazioa bermatzea eta, ahal dela, ehiza, mendizaletasuna eta Naturaren behaketa nahiz gozamen bateratzea.

Gipuzkoako Ekologistak Martxan taldea

Oharrak

Urrezko ezteiak

Larunbatean 13:00etan Eusebio Goikouria eta Rosario Erauzkinen Urrezko ezteia ospakizuna egingo da Oriako Karmengo kaperan. Zorionak eta ondo pasa.

Karmengo Amabirjinaren ospakizuna

Urtero legez, uztailean 16an, oriatarrek Karmengo Amabirjinaren eguna ospatuko dute. Trikitilariak eta meza nagusia antolatu dira oriatarren egun seinalatuan. Lasarte-Oriako herritar guztiak ere gonbidatu nahi dituzte Oriako auzotarrek haiekin ospakizunetan parte hartzera. Animatu zaitztezte, beraz.

Sorgin Jaien zozketa

Sorgin Jaiek zozketatzen zuten bi pertsonentzako afaria 428 zenbakari egokitu zaio. Saria eskuratzeko jarri zaitzete

te harremanetan -jaietako batzordearekin sorginjaiak@gmail.com helbide elektronikoan.

Igerileku txikia itxita

Haurtxoentzat antolatu diren Igeriketa ikastaroak baldintza egokietan garatu daitezten, uztailean zehar asteartetan, ostegunetan eta larunbatetan, goizeko 10:00ak eta 10:30ak bitartean igerileku txikia erabiltzaile ororentzat itxita egongo da.

Santa Ana parodian parte hartzeko

Aurtengo Santa Ana parodian parte-hartu nahi baduzu; aktore moduan (testuarekin edo gabe), atrezzoan, dekorazioan edo/eta jantziekin lagundu nahi baduzu, jo Ttukuneko bulegora (Geltoki kalea 4), deitu telefonoz 943 371448 edo bidali mezu bat

helbide honetara: kultura@ttakun.com.

Pinturako eskolak

Uztailaren 1etik aurrera udako pinturako eskolak hasiko dira "Estudio del Pintor" egoitzan. Eskolak haurrentzako dira, prezio ekonomikoan, goizez astelehentik ostiralera. Urko plaza 1 behe, 620 465 474.

Udako ordutegia

Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuko kirol guneek udako ordutegia izango dute uztailetik aurrera. Honela, kiroldegia astean zehar, goizez 7:00etatik 13:00etara eta arratsaldez 17:00etatik 22:00etara egongo da irekia, baina igerilekua eguerdian 12:30ean itxiko da eta gauetan 21:30ean, larunbatetan goizez bakarrik egongo da irekia 9:00etatik 13:00etara. Bulegoari dago-

kionez, astean zehar soilik egongo da irekia, uztailean 10:00etatik 12:00etara eta arratsaldetan 17:00etatik 19:00etara eta abuztuan 10:00etatik 12:30etara. Kirol gunearen ordutegia, bi hilabeteetan, astean zehar 10:00etatik 12:30etara eta 17:00etatik 21:00etara eta larunbatetan 9:00etatik 13:00etara.

Txakurra galdu

Astelehenean txakurra galdu zen Kotxeras-kaskarro eremuan. Setter ingeles arra da, zuri-laranja kolorekoa eta txipa eta tatuai ditu. Norbait ikusi edo aurkitu badu, mesedez deitu: 605 752 332.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@ttakun.com
txintxarri@txintxarri.info
www.txintxarri.info

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Gaur, 'Talaia' ikuskizuna eskainiko du Gero Axular dantza taldeak

■ Gaueko 10etan hasiko da dohaineko ikuskizuna Manuel Lekuona kulturetxean.

MARIA AGIRRE

Orain arte Donostian eta Heranin eskaini dute *Talaia*, eta ikusleak oso pozik gelditu omen dira. Harrera ona izan du Gero Axular dantza taldearen emanaldiak. Gaur, Lasarten ere arrakasta izatea espero dute.

Musikari eta dantzari ugari igoko dira Kulturetxeko taula gainera: arrantzaleak, batelariak, arrainak... Guztira 120 lagun. Gehienak dantzariak, 8 eta 14 urte bitartekoak. Musikariak, berriz, hamaika guztira. Baina bada dantzari gaztetxo bat ere, 5 urtekoa. Garazi du izena, eta Andoni Iparragirre alaba da. *Argitxoren* papera du obran. *Argitxogatik* ez balitz, istorioa oso gaizki bukatuko litzatekeela esan daiteke. *Talaia* ikuskizunean bikote gazte baten amodiozko istorioa kontatzen da, eta portu batean girotuta dago.

Amodiozko istorioa

Ondo bukatzen den amodiozko istorioa da *Talaia*. Tragedia dago tartean, baina, bukaera pozgarria du.

Neska gazte bat, itsasontziko kapitainaz maitemindu zen arrantzaleen herri batean. Oso maiteminduta zegoen bikotea. Baina zorionak ez zuen asko iraun. Egun batez, arrantzan ari zela, ikaragarriko arrain batek txalupa jo, kapitaina uretara erori, eta galdu egin zen. Albistea jakin zuenean, neska oso atsekabeta gelditu zen. Baina esperantza galdu ez, eta egunero kaiko talaiara igotzen zen maitalearen zain. Egun batez, arrantzale zahar bati kapitaina ikustea iruditu zitzaion. Hala izan zen. Haize bolada batek kapitaina ekarri zuen itsasotik.

Talde-lan handia atzean


Urtebete pasa du Gero Axular taldeak ikuskizun berria prestatzen. Talde-lan handia dago atzetik. Izan ere, guzti-guztira beraiek egiten dute. Istorioa idatzi, dantzak, arropak, eszenatokia, musika moldatu... Lana handia da, baina "oso gustura" ari omen dira. Horren erakusle, gelditu ere ez direla egiten. Hil honen 16tik 28ra Alemaniara joango dira *Talaia* obrarekin. Ondoren Donostian, Zestoan, Deban eta Legazpin eskainiko dute. Eta hori gutxi balitz, jada buruan dute 2011n estreinatuko duten obra berria.

Orain dela bost urte sortu zen Gero Axular dantza taldea, baina ordutik ez dira gelditu. Bi urtetik behin obra berri bat. *Talaia* hirugarren ikuskizuna da.

Dantzarien pizgarri

Euskal dantzak erakutsi, landu eta garatu. Hitz gutxitan hori da Gero Axular dantza taldearen helburua. Andoni Iparragarri musikariak esan bezala, "ikusleen genuen dantzariak ez zitela jarraipenik. Hau da, euskal dantzak ikasten zituzten, baina, urte gutxira utzi. Jarraipen bat emateko sortu genuen taldea. Euskal dantzak eguneratu egin ditugu, eta musikarekin batera landu. Azken finean, ondo pasatuz euskal kultura garatzea da gure helburua".

Taldeakide gehienak Donostiako Axular ikastolakoak badira ere, jada ari dira zabalitzen. "Juan Luis Unzurrunzaga lasarteoriatarra Axularren ari zen dantza eskolaren ematen, eta bertan sortu zen taldea. Baina ez da itxia. Jada beste toki batzuetatik ere hasi zaigu jendea etortzen, adibidez, Hendaiatik. •



120 lagunek parte hartuko dute *Talaia* ikuskizunean. Gehienak dantzariak dira.

Andoni Iparragirre. Gero Axular dantza taldeko musika zuzendaria

"Musikak eta dantzak, biek dute garrantzia 'Talaia' ikuskizunean"

Parte-hartzaile ugari, tartean, Andoni Iparragirre lasarteoriatarra, eta haren alaba, Garazi. Andonik musikariaren zuzendari lanak egiten ditu, baina, gainera, txirula eta beste musika-tresna batzuk jotzen ditu.

Zein da zure lana ikuskizunean?

Hamaika musikari gara, eta ni musikariaren zuzendaria naiz. Horretaz gain, txirula, txalaparta, tobera eta whistlea jotzen dut, txirula antzeko tresna irlandar bat.

Nolako musika da?

Musika ezaguna, ez dugu musika asmatzen. Oskorri taldearen Gaztelugatxe jotzen dugu, musika irlandarrarekin arin-arin bat egiten dugu. Mikel Errazkinen Alostorea ere moldatu dugu. Euskal musika tradizionala, eta folk estiloko musika nahasten ditugu. Uste dut ikusleentzat

oso erakargarria dela ikuskitzeko musika.

Musika, beraz, zuzeneko da.

Bai, eta hori oso garrantzitsua da. Nire ustez, dantza eta musika, biak dira ezinbestekoak. Musikarik gabe ez dago dantzarik, eta jakina, alderantziz ere ez.

Zein musika-tresna gehiago entzungo ditugu?

Soinua, flauta, dultzaina, zarrabetea. Eta kantari bat kantuan arituko da, Maria Eugenia Etxeberria.

Taldea ona omen da.

Nik hala uste dut. Maila ona dugu musikariok.

Alabak ere parte hartzen du.

Bai, *Argitxoren* papera du. Bost urte ditu eta ia denbora guztian eszenatokian dago. *Argitxo* gabe istorioa ez litzateke ondo bukatuko.

